

1981-IV-26

Deban, Juan Jose Mogelen bigarren mendeurrena ospatuz, 1981.eko Apirilaren 26an, Zubeltzu Zinematokian, Euskaltzaindiak, eguerdiko 12etan, bere batzar irekia egin du. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruorde, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, P. Lafitte, L. Mitxelena, F. Ondarra eta J. San Martin euskaltzain jaunak; L. Akesolo, J. Allières, J. A. Arkotxa, D. Landart, I. Laspiur, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, K. Rotaetxe, P. Uribarren eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazle jaunak; J. L. Lizundia, idazkari-ordeak idazkari bezala egiten duelarik.

J. L. Davant, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, E. Larre, P. Larzabal eta J. M.^a Satrustegi euskaltzain jaunak ezin etorria adierazi dute. E. Larre eta J. M.^a Satrustegi jaunak aurreko egunetan egon dira.

Mahaipuruan, Xabier Aizarna j., Gipuzkoako Diputatu Nagusia eta Rafael Rodriguez j., Debako Udal Kultur Batzordeburu eta Zinegotzia ere jarri dira.

Debako alkatearen orde, Rodriguez jaunak irekitzen du batzarra.

Ondoren, A. Jose Ignacio Lasa jaunak, Juan Jose Mogelen estudioez egindako txostena irakurtzen du. Bertan, sakonki, idazle honen biografia, Mogeldarren jatorria eta xehetasun anitz azaltzen ditu, dokumentazio ugari emanez.

Jarraian, A. Lino Akesolo euskaltzain urgazleak, Juan Jose Mogelen euskal lanak aztertzen ditu, batez ere, *baserritar nekezaleentzako eskolia* izeneko liburua. Hizkuntzaren eta gaien aldetik ere arakutzen ditu idazle honen lanak, beronen garai-ko beste zenbait euskal idazleren lekukotasunez osotuz.

J. L. Lizundia idazkari-ordeak, eskertzen ditu antolatzen lagundu duten erakunde eta taldeak, batez ere, Udala eta Patronato Ostolazako Kultur Elkarteak. Aipatzen ditu parte hartu duten irakasleen izenak: Joan Veny i Clar, Joaquim Rafel i Fontanals eta Ramon Cerdà i Masso, Barcelonako Unibertsitatekoak; Jacques Allières, Toulouseko Unibertsitatekoa; Kilburn MacMurrough, amerikar irakaslea; Luis Mitxelena eta Karmele Rotaetxe, Euskal Herriko Unibertsitatekoak eta Ana M.^a Etxaide, Nafarroako Unibertsitatekoa.

Azkenik, L. Villasante jaunak, Dialektologi Ikastaroaren amaiera egiten du, adieraziaz nola ostegunetik iganderarte, hogeit eta hamabi ikasle Dialektologia ikerketarako prestatzen aritu diren aipaturiko irakasleen gidaritzapean. Euskaltzainburuak, azpimarratzen du nola Euskaltzaindia, euskalkiekin arduratzen den, horretarako, azterketa eta argitalpenak bultzatuz edo Ikastaro honetan bezala ikertzaileei bideak irakatsiz.

Eta besterik gabe mendeurren ospakizuneko batzarrari ere bukaera ematen dio Euskaltzainburuak.

Euskaltzainburua

Idazkariordea

L. Villasante

J. L. Lizundia